



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

LESAKA

Ordenantzaren aldaketa, Eskriboenea eraikineko beheko solairuan dauden lan partekatuko guneen edo “coworking” guneen erabilera eta prezioak arautzen dituen. Behin betiko onespena

Lesakako Udalak, 2022ko maiatzaren 19an egin bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Eskriboenea eraikineko beheko solairuan dauden lan partekatuko guneen edo “coworking” guneen erabilera eta prezioak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.

Hasierako onespeneren erabakia 2022ko 112. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 7an, eta jendurreko epean inork ez du alegaziorik aurkeztu. Hortaz, behin betiko onetsi, eta osorik ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz. Aditzera ematen da, orok jakin dezan eta behar diren ondorioak izan ditzan.

Lesakan, 2022ko abuztuaren 10ean.

Alkatea,



Ladis Satrustegui Alzugaray